



ONDARROAKO UDALA

ONDARROAKO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Herenegun (2021/09/29) Ondarroan bizi zen 40 urteko arrantzale senegaldar baten heriotzaren berri izan genuen, lanean zegoen bitartean jasandako heriotza.

Ondarroako Udalak atsekabez hartu du pertsona baten lan-istripuaren ondoriozko heriotzaren berria. Lehenik eta behin, gure babesa eta elkartasuna adierazi nahi diegu sendiari eta beste bizi berri baten bila beraien herriak utzi eta gure artera etortzen diren langileei eta komunitateari. Gehienetan, guk nahi ez ditugun lan gogorak hartzen dituzte beregain, kasu honetan, arrantza gisako sektore gogor baten. Aldi berean publikoki gure gaitzespena adierazi nahi dugu, lanean bertan bitzita galtzea eragin duen lan-ezbehar egoera dela eta.

Ondarroako Udalak salatu nahi du istripuak, kosta ahala kosta, eta guztiaren gaintik, ekidin beharra dagoela, lan mota guztietan lehentasuna behar baitu izan lan segurtasunak.

Udalak berresten du pertsonak, eta hein batean langileak direla gure herrialdearen garapen sozial eta ekonomikoaren muina. Horregatik jotzen du ezinbestekotzat lan-osasunari eta segurtasunari buruzko kanpainak bultzatzen jarraitzea, bai eta lan-arriskuen prebentziorako arauak betearaztea ere.

Lan-istripuak gure sistema ekonomiko-sozialaren egiturazko arazo bilakatu dira. Lan-arriskuen aurkako defentsarik onena prebentzioa eta prestakuntza dira, horien bidez lortzen baitute langileek ongizatea, ezagutza eta segurtasuna, eta horretarako ezinbestekoa da segurtasunean inbertitzea.

Horregatik guztiagatik, erakunde guztiei berriz ere eskatzen die lan-arriskuen prebentzioan jardunbide egokiei buruzko proiektuetan lagun dezatela, lan-administrazioarekin eta erakunde sindikal zein patronalekin koordinatuta, eta laneko segurtasunaren eta osasunaren aurkako delituak jazar ditzatela, baita ikuskapen funtzioak gehitu eta hobetu ere.

Hau horrela izanik, Ondarroako Udalak ondorengo erabakiak hartu ditu:

- 1- Lan-istripuen aurkako salaketa argia egitea, eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak eta Osalanek heriotzaren inguruabarrak argitzeko eskatzea, senideei eta hurbilekoei informazioa eman ahal izateko.
- 2- Senideei eta hurbilekoei besoa luzatzea, edozein beharrianetan Udalak bere eskumenetan dauden laguntza guztiak eskainiz.
- 3- Ezinbestekoa da laneko osasunari eta laneko segurtasunari buruzko kanpainak bultzatzen jarraitzea, bai eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak betetzea eskatzea ere, batez ere lan-prekarietate argiko egoeretan.
- 4- Udalak eskatzen die erakunde guztiei lan-arriskuen prebentzioari buruzko jardunbide egokiei buruzko proiektuak egiten jarrai dezatela, lan-administrazioarekin eta erakunde sindikal eta patronalekin koordinatuta, bai eta laneko segurtasunaren eta osasunaren aurkako delituak pertsegitzeko eta ikuskapen-funtzioak areagotu eta hobetzeko ere.
- 5- Ondarroako Udala, era berean, bat egiten du, heriotza-istripua, salatu eta elkartasuna eta babesa adierazteko familiari eta lagunei egiten diren ekimenekin, eta parte hartzera animatzen ditu herritarrak.
- 6- Erabaki guzti hauek udal bando eta ohiko hedabideen bidez herritar guztiei ezagutzera emango zaizkie.
- 7- Udal honek datozen bi egunak dolu egun izendatzen ditu eta banderak masta erdian ipiniko ditu.

ONDARROAKO UDALA

2021eko urriaren 1a.